PRR 2013 2016



# BIRGAITZE SEKTOREAREN ERRONKA AUTONOMIKOAK

# 2013-2016 ALDIRAKO RENOVE BIRGAITZEA PLANA

HIRI BIRGAITZEAREN ERRONKAK XXI. MENDEAN
AVS jardunaldiak
2013ko ekaina

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Vivienda

## Contexto / Testuingurua

**Etxebizitza berrien sustapenarekin alderatuta, baliabide gutxi esleitzen dira eraikinak osorik birgaitzeko**

**HIRIAK BIRSORTZEKO POLITIKA SISTEMATIKO, KOHERENTE ETA JARRAITUA SUSTATZEA**



## Egungo etxeetan, orokorrean, gabezia handiak daude:

- Eraginkortasun energetikoa
- Irisgarritasuna
- Gizarte-faktorearen eragina hirigune degradatuetan








## Contexto / Testuingurua



ALDAKETA BULTZATZEA

FINKATUTAKO ESPAZIOAK BIRGAITZEKO ETA BIRSORTZEKO, JOKABIDE ENERGETIKOA ERAGINKORRA IZAN DADIN

ORAIN ARTE, OIN BERRIKO ERAIKINAK ERABILI DIRA HIRIAK HAZTEKO ETA ZABALTZEKO. EREDUA ALDATU BEHARRA DAGO.

## Contexto / Testuingurua

EGUN DAGOEN ETXEBIZITZA-PARKEA BIRGAITZEKO PREMIA GERO ETA HANDIAGOA DA; BERAZ, ERAKUNDE GUZTIEK BAT EGIN BEHAR DUGU AGENTE PRIBATUEKIN

HIRI-BIRGAITZEA ETA -BIRSORTZEA BULTZATZEKO ETA EUSKADIN JASANGARRITASUNAREN ALDEKO APUSTUA BERRIZ ERE EGITEKO



# ESTADO DEL PARQUE RESIDENCIAL DE EUSKADI / ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Etxebizitza-kopuruak gora egin du 10 urteotan Autonomia Erkidego guztietan, baina Euskadiren kasuan, hazkundea txikiagoa izan da (% 14,4):

2011. urtean, **1.017.602 familia-etxebizitza** daude eta horietatik % 87,4 etxebizitza nagusiak dira, % 4,7 bigarren etxebizitzak eta % 7,9 hutsik daude.

| Viviendas | | | |
|---|---|---|---|
| Censo 2011 | Censo 2001 | Variación absoluta | Variación relativa (%) |
| 1.017.602 | 889.560 | 128.042 | 14,4% |



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Etxebizitza nagusien kopurua % 20 handitu da hamarkada batean: 147.532 etxebizitza gehiago daude eta etxebizitza nagusien parkean 888.940 etxebizitza biltzen dira orain.

Aldiz, 6.206 bigarren etxebizitza gutxiago daude Euskadin (% 11,5eko jaitsiera) eta orain 47.659 dira.

Hutsik dauden etxebizitzen kopuruak ere % 14 egin du behera hamarkada batean eta orain 81.003 dira.



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Euskadin eraikitako 163.524 eraikinei dagokienez,

% 42 1961. urtea baino lehen eraikia da

50 urte baino gehiagoko 69.000 eraikin daukagu.

**Alderatuta,**

**Europa hegoalde osoko parkerik zaharrena da**

Europe´s Buildings under the microscope txostena. HB



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Euskadin dauden 163.524 eraikinei dagokienez,

- 149.760 egoera onean daude (% 91)
- 13.764 aldaketa garrantzitsuren bat egiteko premian daude
- 689 aurri-egoeran daude

| | Edificios 2001 | % sobre total 2001 | Edificios 2011 | % sobre total 2011 |
|---|---|---|---|---|
| **C.A. EUSKADI** | 150.387 | | 163.524 | |
| **Ruinoso** | 2.171 | 1,44 | 689 | 0,42 |
| **Malo** | 3.980 | 2,65 | 2.344 | 1,43 |
| **Deficiente** | 13.663 | 9,09 | 10.731 | 6,56 |
| **Bueno** | 130.573 | 86,82 | 149.760 | 91,58 |



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Arau teknikoetan eraginkortasun energetikoa txertatzea 2006ko martxoaren 29an hasi zen indarrean.

EAEko etxebizitza-parketik soilik % 5 dago eraginkortasun energetikoko irizpideei jarraiki eraikia



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

**EAEko etxebizitza-parkearen pobrezia energetikoa** da arazo larrienetako bat.

Parkearen kontsumoa honako hau da:

- EAEko etxebizitza batek 0,69 tona petrolio kontsumitzen du urtean
- EAEko familia bakoitzaren energia-gastua batez beste 1.000 € da etxebizitza bakoitzeko
- Berokuntzak energia-kontsumo guztiaren % 40 osatzen du eta etxeko ur beroak % 20



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

ETXEBIZITZA OSOA BERRITUZ GERO, EGITURAZKO HOBEKUNTZAK EGINDA, BEROKUNTZAN KONTSUMITZEN DENA % 40 MURRIZTU DAITEKE




EUSKADIKO FAMILIA-ETXEBIZITZEN % 60 1979. URTEA BAINO LEHENAGOKOA BALDIN BADA,

ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOAZ ARI GARALARIK, INGURATZAILE TERMIKOAK OSO GARRANTZI HANDIA DU BIZITEGI SEKTOREAREN KONTSUMOA ARINTZEKO

ecoeuskadi 2020
Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi

Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi 2020

EcoEuskadi 2020 estrategia bat dator Europa 2020 Estrategiarekin, hau da, eraginkortasun energetikoaren arloko hiru xede dituen estrategiarekin:

## 20-20-20 Estrategia

- **Berotegi-efektuko gasen emisioak % 20 murriztea** 1990. urtekoekin alderatuta.
- **Energia-kontsumoa % 20 murriztea** 1990. urtekoarekin alderatuta.
- Energia primarioaren **% 20 iturri berriztagarrietatik** lortzea.



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

## Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

EAEko ETXEBIZITZA-PARKEAREN BIGARREN ARAZOA

**IRISGARRITASUNARI DAGOKION POBREZIA DA**



# EUSKADIKO ETXEBIZITZA-PARKEAREN EGOERA

Testuinguru kualitatiboa **(2011-2001 Erroldako datuak):**

Euskadin, **108.000** eraikin baino gehiago dira **irisgarritasun-arauak betetzen ez dituztenak**

Eraikinen % 34 baino ez da irisgarria eta % 24k dauka igogailua 2011. urtean



HIRIA BIRGAITZEKO POLITIKA BERRIA EZARRI BEHAR DA LEHENBAILEHEN ETXEBIZITZAK, ERAIKINAK ETA INGURUAK IRISGARRI BIHURTZEKO, BAI BAITAKIGU IRISGARRITASUNAK ZENBATEKO ERAGINA DUEN JENDE ASKOREN EGUNEROKO BIZITZAN

PRR 2013 2016

PROGRAMA DE
**REACTIVACIÓN**
DEL EMPLEO
2013-2016

Nuestro compromiso con las personas

PROGRAMA DE
**REACTIVACIÓN**
DEL EMPLEO
2013-2016

Nuestro compromiso con las personas

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 281 MILIOI EUROKO TXOKE-PLANA: JATORRI PUBLIKO ETA PRIBATUKO 1.014 MILIOI EURO MOBILIZATZEA AURREIKUSTEN DA

## 12.711 LANPOSTU BERRI SORTZEKO

- Finantziazioa resa txiki eta ertai eta autonomoak
- Ekintzailetza.
- Gazteen enplegua sustatzea
- Enplegurako prestakuntza
- Enplegurako Elkartasun Funtsa
- RENOVE Birgaitzea

## Contexto / Testuingura

- **Krisi- eta langabezia-testuinguru batean gaude.** Eraikuntzaren sektorea bereziki ari da pairatzen krisialdia.
- EAEko etxebizitzek behar handiak dituzte (etxebizitzen %76k **oztopak** dituzte eta % 29k ez du igogailurik eta **portaera energetiko eskasa du**)
- Premiei ez zaie behar bezalako erantzuna eman, etxebizitza berriak sustatzeari eman zaiolako lehentasuna.
- Birgaitzea: **Enplegua Sustatzeko 2013-2016 Programan ezarritako jardun-ildoa.**
- **Europa 2020 Estrategiaren ingurumen-helburuekin bat dator.**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Vivienda

# **RENOVE** Birgaitzea 20**13**-20**16** plana

Gure konpromisoa pertsonekin

# Principios / Printzipioak

1. Administrazioaren sustapen-lana
2. Erakundeen arteko elkarlana
3. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana
4. Jasangarritasuna
5. Ekitatea
6. Eraginkortasuna eta efizientzia



# Objetivos estratégicos / Helburu estrategikoak

| Helburu orokorra | Enplegua sortzea, energia aurreztea eta gizarteari kohesioa ematea, birgaitze-politika burutsu, jasangarri eta integratzaile baten bidez |
|---|---|
| Helburu zehatzak | 1. **ENPLEGUA SORTZEA** BULTZATZEA<br>2. **BIZI-KALITATEA ETA GIZARTEAREN KOHESIOA** HOBETZEA<br>3. ERAIKUNTZAREN MERKATUA **DINAMIZATZEA**<br>4. ENERGIA **GUTXIAGO** KONTSUMITZEA ETA CO2 GUTXIAGO ISURTZEA ETA, HARTARA, EUROPA 2020 ESTRATEGIAREN HELBURUEKIN **BAT EGITEA**<br>5. BIRGAITZEAREN **IKUSKERA BERRITZAILE** BAT APLIKATZEA, **OSOTASUNEAN ESKUA SARTZEA** DUENA OINARRI<br>6. **KULTURA BERRI BAT SUSTATZEA** HIRIGINTZA-ARLOAN |

# Programas / Programak

1. Partikularrei eta etxejabeen elkarteei eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak emateko programa
2. Udalei eta toki-entitate txikiei irisgarritasuna hobetzeko laguntzak emateko programa
3. Birgaitze integratuko eremuetan eta bizitegi-eremu degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko diru-laguntzak emateko programa
4. Etxebizitzak eraginkortasunez birgaitzeko eta ondare eraikian eskua sartzeko proiektuak egiteko laguntzak emateko programa
5. Hiria birgaitzeko diru-laguntzak emateko programa

# 1- Partikularrei eta etxejabeen elkarteei eraikin eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak emateko programa

## DIRUZ LAGUNDUTAKO LANAK

- Eraikinaren egitura eta eraikuntza egokitzeko lanak eta etxebizitza eta saltokien baldintzak egokitzeko lanak (etxebizitza eta saltokiak bizitzeko egokiagoak egiteko).
- Etxebizitzak eta sarbideak ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonei buruz indarrean dagoen araudira egokitzeko lanak.
- Energia aurreztearren, inguratzaile termikoa atontzeko lanak.
- Eraikuntzaren eta etxebizitzen akabera orokorra eraikuntza egokiaren printzipioetara egokitzeko lanak.

## ONURADUNAK

- Partikularrak.
- Etxejabeen elkarteak.



## LAGUNTZAK

- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.
- Mailegu kualifikatuak.

# 2- Udalei eta toki-entitate txikiei irisgarritasuna hobetzeko laguntzak emateko programa.

## DIRUZ LAGUNDUTAKO LANAK

- Lehendik dauden hirigune, eremu publiko, eraikin, garraiobide eta informazio-sistemak harian-harian abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezartzen dituen irisgarritasun-baldintzetara egokitzeko irisgarritasun-planak egiteko eta eguneratzeko lanak.
- Udalen eta toki-entitate txikien irisgarritasun-planek finkatzen dituzten hobekuntza-lanak.
- Hirigunea, eraikinak eta eremu publikoak ibilerrazak direla ziurtatzeko, igogailuak eta jasogailuak erosteko eta instalatzeko lanak.




## ONURADUNAK

Udalak, toki-entitateak eta irabazi-asmorik gabeko onura publikoko erakunde pribatuak.

## LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

# 3- Diru-laguntzak emateko programa, birgaitze integratuko eremuetan edo bizitegi-eremu degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko

## DIRUZ LAGUNDUTAKO LANAK

Birgaitze integratuko eremuetan eta bizitegi-eremu degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko planak egitea.

## ONURADUNAK

Udalak eta hiria birgaitzeko hirigintza-sozietateak.

## LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

# 4- Etxebizitzak eta eraikinak eraginkortasunez birgaitzen (berritzen) laguntzeko proiektuak: ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko.

**DIRUZ LAGUNDUTAKO LANAK:** Proiektuak idazteko eta obrak egiteko, arlo hauetan:

- Arlo hauek behintzat jorratzen dituzten interbentzio integralak::
  - ENERGIA-KONTSUMOAREN MURRIZKETA Beroa ekoizteko eraikin eta instalazioen bilgarria egokitzeko lanak. C mailako ziurtagiri energetikoa lortu behar da gutxienez.
  - IRISGARRITASUNA Kaletik etxebizitza bakoitzerako irisgarritasuna hobetzeko eta bidean mailarik igo eta jaitsi behar ez izateko lanak.
  - SEGURTASUNA Larrialdietako argiak, seinaleak, suteak antzemateko eta itzaltzeko sistemak eta bizilagunei alarmak iritsarazteko sistemak instalatzeko lanak.
- Barruko konfort termikoaren eta berogailuen energia-kontsumoaren monitorizazio energetikoa.
- Perimetro eraikia handitzeko lanak, bizitzeko baldintzak hobetzeko.

**ONURADUNAK**

Etxejabeen elkarteak.

**LAGUNTZAK**

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

# 5- Hiria birgaitzeko diru-laguntzak emateko programa

## HELBURUA

Hiria birgaitzeko lanak berariaz laguntzea hirigintza- eta gizarte-arloko arazo bereziak dituzten eremuetan:

- Sarratu ingurua, Basauri.
- Peñascal ingurua (Iturrigorri-Gardeazabal), Bilbo.
- Mariaren Bihotza plazaren ingurua, Bilbo.
- Txabarri-El Sol ingurua, Sestao.
- San Juan ingurua, Santurtzi.
- Txomin Enea ingurua, Donostia.
- Mogel ingurua (Ipurua), Eibar.
- Makatxena ingurua, Arrasate.
- Santa Juliana Abanto Zierbena.
- San Juan erreka – Nerbioi ibaia, Laudio.
- San Jose auzoa, Amurrio.
- Osintxu auzoa, Bergara.



## ONURADUNAK

Udalak eta hiria birgaitzeko hirigintza-sozietateak.

## LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

## Guztira, 52.000 etxebizitzatan sartuko dugu eskua

| LANA | 2013 (etxebizitza kop.) | 2013 – 2016 (etxebizitza kop.) |
|---|---|---|
| Etxebizitzetan eskua sartzeko lanak | 12.100 | 50.000 |
| Eraikinak osotasunean birgaitzeko lanak | 404 | 1.140 |
| Eremu eta ekipamendu publikoetako irisgarritasuna hobetzeko lanak | 120 | 480 |
| Hiria birgaitzeko lanak | 140 | 860 |
| Guztira | **12.764** | **52.480** |



# Recursos económicos destinados a la rehabilitación / Hiria birgaitzeko baliabide ekonomikoak

- Ematekoak garen **laguntzen** zenbatekoa: **81,5 M€** 2013-2016 aldian.
- Zenbateko horri esker, beste 859,5 M€ mugituko dira.
- **Hiria birgaitzeko baliabideen zenbatekoa, guztira: 3 milioi €.**

| | 2013 | | 2013 - 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| LANA | Laguntzen zenbatekoa (€) | Mugituko den zenbatekoa, guztira (€) | Laguntzen zenbatekoa (€) | Mugituko den zenbatekoa, guztira (€) |
| Etxebizitzetan eskua sartzeko lanak | 12.000.000 | 210.000.000 | 48.000.000 | 840.000.000 |
| Eraikinak osotasunean birgaitzeko lanak | 6.060.000 | 12.120.000 | 17.500.000 | 35.000.000 |
| Eremu eta ekipamendu publikoetako irisgarritasuna hobetzeko lanak | 1.800.000 | 9.490.000 | 6.800.000 | 47.600.000 |
| Hiria birgaitzeko lanak | 2.000.000 | 4.000.000 | 9.200.000 | 18.400.000 |
| Guztira | 21.860.000 | 235.610.000 | 81.500.000 | 941.000.000 |

## IMPACTO EN EMPLEO Y RETORNO FISCAL / ENPLEGU ETA ZERGA-ITZULKINAREN GAINEKO ERAGINA



- **13.765 lanpostu sortuko dira** 2013-2016 aldian. 3.146 lanpostu 2013an.

- 2013-2016 aldiko **zerga-itzulkina** BEZ, EIOZ eta sozietateen gaineko zergagatik: **3,705 milioi euro**

# ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA

Sestao Udala Ayuntamiento

sestaoBERRI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Departamento de Empleo y Políticas Sociales

## INBERTSIOEI LEHENTASUNA EMATEA

## HONAKO LORPEN HAUEK EKARRIKO DITUZTEN PROGRAMAK GARATUTA:

Eremu publikoak hobetzea

\+ Eraikinak hobetzea

Gizarte-kohesioa

---

## GIZARTEA, HIRIGINTZA ETA EKONOMIA HOBETZEA

# TXABARRI EL SOL INGURUA SESTAON

## HIRI-BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIA

## TXARABRI-EL SOL

Birgaitze integratuko eremua, 25 eraikin antolatzeko

- birgaitze integrala: 10
- berregite-obrak: 3, eta
- birgaitze partziala: 12



# TXABARRI EL SOL INGURUA SESTAON




**BIRGAITZE INTEGRAL BATEN ADIBIDEA** 25-31 ATARIAK

120 urte baino gehiago dituzte eta 1880-1919 aldian langileei alokatutako etxebizitzen eredutzat har daitezke; apustua da etxeak osorik birgaitzea, esku publikoa eta pribatua erabiliz, eta betiere EAEko etxebizitzen eraikuntza irakunkorrerako gidan jasotako jarraibideei jarraiki

## CONCLUSIONES / ONDORIOAK

Birgaitze-sektorearen **erronka autonomikoak:**

- **Etxeak birgaitzeko kultura berria ezartzea**, beti berriak eraiki gabe.
- Etxebizitzen **eraginkortasun energetikoa** hobetzea.
- Ingurua hobetzea **irisgarri** bihurtuta, bizi-kalitatea areagotzearren.
- **Europako** 20 20 20 **helburuetara** hurbiltzea.

PRR 2013 2016

# MILA ESKER ZUEN ARRETAGATIK

COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARIA
Etxebizitza Sailburuordea

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
EUSKO JAURLARITZA.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EMPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Etxebizitza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Vivienda